



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Zuzenketarako koadernoak

2
0
0
9
/
1
0

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

DBHko 2. MAILA

IRAKURTZEKO GAITASUNA

Zuzenketa eta erregistro jarraibideak

Liburuxka honetan ezarritako zuzenketa irizpideak eginiko proba pilotuaren arabera zehaztu dira, eta zehatzak eta argiak izan nahi dute, zuzentzaile guztiak puntuazio irizpide berberak erabil ditzaten; hau da, zuzentzailea nornahi izanda ere, proba bati ematen zaion puntuazioa berbera izan beharko luke.

Ondoko urratsei jarraituko zaie:

1. Zuzenketa.

Alternatiba bat hautatzea eskatzen duten galderak (A, B, C edo D).



Zuzentzaileak ez du deus berezirik egin behar.

Gainontzeko galderak



Zuzentzaileak, zuzenketa egin eta galdera bakoitzaren ondoan idatziko du dagokion kodea (0, 1, 2...).

2. Kodeak aplikazio informatikoan sartzea.

Kodeak (A, B, C, D, 0, 1, 2...) aplikazio informatikoan sartuko dira.

Erantzunik gabeko galderetan ez da koderik sartu behar (utzi zuriz).

Alternatiba bat hautatzea eskatzen den galderetan, ikasleak aukeraren bat baino gehiago adierazi dituzenean (eta ezabatu gabe bat baino gehiago utzi dituzenean) ez da koderik sartu behar.

Ikasleek eginiko probak ikastetxean gordeko dira eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren esku egonen dira. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak egiaztatze azterketak egin ahal izanen ditu, zuzenketa irizpideen baliotasuna egiaztatzeko eta irizpide horiei modu homogeneoan jarraitu zaien ikusteko.

Ardi ausarta



Uda hasierako egun zoragarria zen. Ez dut gogoan zehatz-mehatz zein egun zen, baina badakit ilobek eskolak amaitu zituztela eta aztoratuegi zeudela aurretiko zituzten oporrak zirela-eta etxean geldirik edukitzeko.

- Joango al gara mendira paseatzera? –galdetu nion Ainhoari.
- Bai, mesedez... -egin zuen oihu gogo beroz- Ziur asko Amaiak ere etorri nahiko du.

Esan eta egin. Amaia ere etorri zen paseatzera.

Mendiz eta larrez inguratutako herri txiki batean bizi ginenez, laster utzi genituen atzean etxeak, lastategiak, eta *elizako kanpandorrea ere laster ostendu zen basoko sasien artean.*

Bat-batean, Amaia gelditu egin zen, eta isilik egoteko eskatu zigun.

- Isilik! Zerbait entzuten dut! Ardiak dira! Goazen ikustera, bizkor!

Bizi-bizi, marraken soinuak gidaturik jarraitu genuen. Basoaren muga, larre batean, ekaineko eguzki *izpi beroen pean, tapaki zuri eta horixka trinkoa ikusi genuen.* Berrehun bat ardi izango ziren, denak pilatuta zeuden, ez ziren ia mugitu ere egiten edo pixka bat jasotzen zuten burua.

- Goazen, harri horien gainean eseriko gara –esan zuen Ainhoak, handik gertu zegoen harkaitz bat erakutsiz-. Ardiak nola bazkatzen diren ikustea eta egiten dituzten soinuak entzutea gustatzen zait.

Handik gutxira, ardi bat artaldetik bereizi zela eta beste larre baterantz zihoala ikusi genuen. Pauso ziurrak eta zalantzarik gabeak ematen zituen ehunka urte zituzten zumarrek gerizpean zuten larre hartarantz. Ziur asko, han zegoen belarra askoz ere leunagoa, freskoagoa eta hezeagoa izango zen.



Ezerezetik atera balitz bezala, artaldea zaintzen zuen zakurra beste larre batzuetan bazkatu nahi zuen ardiaren atzetik joatera behartu zuen artzainaren ahots lodi eta zakarrak. Korrika abiatu zen, zaunkaka, izugarri ahaleginduz, baina ardia ez zen gelditu eta ez zuen artaldera itzultzeko asmorik agertu. Burua pixka bat biratu zuen, eta orduan iruditu zitzaidan hasi zuen hori burutzeko erabakitasun eta ausardia handia erakusten zutela haren begiek. Pentsatu nuen agian ez zela izango saiatzen zen lehenbiziko aldia eta gogoz nahi izan nuen zumarren gerizpera hel zedila.

Izeba, zakurrak hozka egingo dio! –oihukatu zuten izututa ilobek.

- Lasai. Ez da ezer gertatuko. Bera lana da. Ez dio minik egingo. Ez ezazue oihurik egin! Eta egon zaitezte geldirik! Ikus dezagun zenbateraino den ausarta ardi hori!
- Izeba, gerizpera iritsiko dela uste duzu? –galdetu zuen Amaiak nahigabetua.
- Hartu duen erabakiaz ziur badago bakarrik iritsiko da; gainerakoan, atzera egingo du eta beste batean saiatuko da berriro. Edo, beharbada, ez da inoiz gehiago saiatuko. Batek daki zer pentsatzen duten ardiek!

Hirurak oso geldirik gelditu ginen, gertatzen ari zenari behatzen. Eta zakurrak masailezurak ireki zituenean ardiaren atzeko hanken parean, artaldeko beste ardi batzuk zutitu zirela eta ardi ausartaren norabidean zihoazela ikusi genuen. Beste ardi batzuk mugitu zirela ohartu zenean, zakurra nahasirik gelditu zen, eta masailezurak itxi zituen, ez baitzekien zein ardi eramán artegira.

Ardi ausartak oinez jarraitu zuen, astiro, erabakitasunez, une bakar batean ere helburua galdu gabe, atzean gertatzen ari zenari kasu gehiegirik egin gabe, baina, aldi berean, gainerako ardiei marraka samurren bidez deitzeari utzi gabe.

Lehenbizi bat, gero bi eta azkenean zortzi bat ardi zenbatu nituen zuhaitz bikain haien gerizpe freskoan bazkatzen.

Isiltasuna nagusitu zen berriro mendian, zakurrak etsi egin zuen eta basoko gaztainondo baten gerizpean etzan zen. Artzainak, zakurraren ondoan, ahots nekatuarekin, honako hau murmurikatu zuen: “Jan dezatela nahi duten belarra, ez dut inolako hesirik ikusten belardi horretan.”

Barnetik barre egin nuen. Gogora etorri zitzaidan zenbatetan entzun izan nion herriko jendeari ardi guztiak tentelak direla esaten. Udako egun hartan, ilobekin huts horretaz jabetu nintzen: kontua zen artzainaren ahotsari eta zakurraren zaunkei men egiten ohituak zeudela.

Ilobak besarkatu nituen eta, bizkarreko zorroan nuen ura eskainiz, irribarre batekin, honako hau galdetu nien:

- Zuen ustez, zein dira ardi zoriontsuagoak: edo denak elkarrekin eguzkipean gelditu direnak, edo zumarren gerizpera iristea lortu dutenak?

Amaiak, bietan txikienak, begiak zabal-zabalik zituela, hau esan zuen:

- Zeinen galdera arraroak egiten dituzun, izeba. Halere, oso ongi pasatu dut. Itzuliko al gara etxera? Gosetu naiz-eta.

Ile motza nahasi nion eta musu bat eman. Izan ere, nire ama ekartzen zidan gogora...!

Zertxobait zaharragoa, hamaika edo hamabi urte izango zituen, Ainhoak oso serio erantzun zuen, esan beharrekoa garrantzizkoa zela uste zuenean egin ohi zuen moduan:

- Nire ustez, denak berean dira zoriontsu.
- Zergatik?
- Ardi guztiak daudelako nahi zuten lekuan. Batzuek gerizpera joan nahi zuten eta ez zaie batere axola izan zakurrak zaunka egitea. Orain bai artzaina eta bai zakurra lo daude. Beraz, gainerakoak ez badira joaten... eguzkipean ongi daudelako izango da...

Eta hala zen, ardi bakoitzak aukeratu zuen non egon nahi zuen.

Pentsakor gelditu nintzen, atzealdean ardien marrakak entzuten zirela. Orduan konturatu nintzen nire bizitza ardi ausartarenaren antzekoa izan zela. Ez ezazue pentsa nire ametsa belar freskoa jatea zela...! Baina borroka egin behar izan nuen eta erronka askori egin behar

izan nion aurre egun nagoen leku honetara iritsi ahal izateko. Atzera egiten dut eta gogora datorkit nire lehen lana: emakume bakarra nintzen gizonen mundu batean, ingeniaria. Orduan ez ziren emakumeentzako ikasketak, baina, halere, ikasi, borrokatu, negar egin eta nire beldurrak gainditu nituen. Gaur, ilobei begiratzen diet, eta bihotz-bihotzetik nahi dut beren idealen eta ametsen alde lan egiteko gauza izan daitezela.

Zutitu nintzen, ur botila hutsa zorroan sartu nuen, eskua eman nien eta etxerako bidea hartu genuen. Berandutu egin zitzaigun eta eguzkia ezkututzen ari zen ostertzean. Laster, itzalak basoa estaliko zuen.

Ana Ábrego Galilea



1. Noiz gertatzen dira kontakizun honetako ekintzak?

- A. Udazken hasierako egun zoragarri batean.
- B. Zehatz-mehatz uda hasieran, hau da, ekainaren 21ean.
- C. Uda hasieran eskola egunak amaitu gabe oraindik.
- D. Eskola egunak amaiturik ziren egun zoragarri batean.

2. Ipuinaren hasieran honela dio: “eta elizako kanpandorra ere laster ostendu zen basoko sasien artean”. Zein izango litzateke “ostendu” aditzaren sinonimo egokia?

- A. Ezkutatu
- B. Hondatu
- C. Agertu
- D. Ikusi

3. Nortzuk dira kontakizun honetako protagonistak?

- A. Ama bat eta bere bi alabak
- B. Bi ahizpa
- C. Izeba bat eta bere bi ilobak
- D. Lagunak diren hiru neska

4. Zein da testu honen narratzailea?

- A. Ana Abrego Galilea
- B. 3. Pertsonan kontaktzen duen narratzailea
- C. Amaia, ilobetako bat
- D. Izeba

5. Narrazioaren une batean honela dio: “Basoaren mugan, larre batean, ekaineko eguzki izpi beroen pean, tapaki zuri eta horixka trinkoa ikusi genuen.” *Tapaki zuri eta horixka trinkoa* aipatzean zer esan nahi du?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Artalde bat ikusi zuten. Ardien ilearen koloreaz ari da.

6. Kontakizuneko protagonistak artalde bati begira zeudela artaldeko ardi bat zegoen larretik beste larre baterantz abiatzen ikusi zuten. Zergatik aldatu nahi du ardi horrek larrez?

- A. Larre horretako belarra, ziurrenik, freskoagoa eta leunagoa izango delako.
- B. Artaldea zaintzen zuen zakurra atzetik zetorkiolako.
- C. Artzainaren ahots lodi eta zakarrak horrela agindu ziolako.
- D. Egunero eguzkiak gehien berotzen zuenean horrela egiten zuelako.

7. Zakurra ardiari hozka egiteko puntuan zegoenean, zerbait gertatu zen zakurra geldiarazi zuena. Zer gertatu zen?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	<ul style="list-style-type: none"> • Beste ardi batzuk ere mugitu ziren eta zakurra nahasirik geratu zen. • Beste ardi batzuk ardi ausartaren atzetik joan ziren eta zakurra nahasirik geratu zen, ez baitzekien zein ardi eraman artegira (edo artaldera).

8. Zortzi bat ardi gerizpean (itzala) zegoen larrera joan zirela ikustean artzainak...

- A. Makila hartu eta lehenengo larrera itzularazi zien.
- B. Zakurrak gogor ekin zien berriro lehengo larrera eraman arte.
- C. Artzainak bertan utzi zituen, baina hesi bat jarri zien.
- D. Artzainak bertan utzi zituen ez zegoen inolako hesirik eta.

9. Pertsonaien ezaugarriei buruz kontakizunean esaten dena kontutan izanik, ondorengo baieztapenetan, zein da guztiz zuzena?

- A. Iloben izenak Amaia eta Ainhoa dira, Amaia da bietan txikiena eta Ainhoa da izebari bere ama gogora ekartzen ziona.
- B. Iloben izenak Amaia eta Ainhoa dira, Ainhoak hamaika edo hamabi urte zituen eta Amaia askoz gazteagoa zen.
- C. Iloben izenak Amaia eta Ainhoa dira, Amaia da zaharrena eta Ainhoa gazteena.
- D. Iloben izenak Amaia eta Ainhoa dira, Amaia Ainhoa baino zertxobait gazteagoa da.

10. Izebak une batean dio: “Udako egun hartan, ilobekin, huts horretaz jabetu nintzen.” Zein hutsari buruz ari da?

- A. Ardiek artzainaren ahotsari men egiten diotela esatea.
- B. Ardi guztiak tentelak direla esatea.
- C. Herriko jendeak gehiegi hitz egiten dutela esatea.
- D. Ardiek zakurraren zaunkei beti beldur dietela esatea.

11. Zergatik uste du Ainhoak gerizpean dauden ardiak ezezik eguzkipean daudenak ere zoriontsuak direla?

- A. Artzaina eta zakurra lo egonik joaten ez badira eguzkipean ondo daudelako.
- B. Beraiek ez dutelako zakurraren zaunka edo hozkarik sufritu behar izan.
- C. Beraiek eguzkipean goxo-goxo belarra jaten aritu direlako.
- D. Ardi guztiak tentelak direlako eta beti zoriontsu bizi direlako.

12. Kontakizun honi ikasbide (*moraleja*) bat jarri beharko bazenio, zein jarriko zenioke. Arrazoitu zure erantzuna.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Bizitza honetan ausarta izan behar da. Puntu bat emango da, baita ere, zera aipatzeagatik: batzuetan, gauzak ez dira uste dugun bezalakoak (ardiak ez dira hain tuntunak).
2	2	Ipuineko ardiak bezala, guk ere nahi duguna lortu ahal dugu, oztopoei edo trabei aurre eginez. Gure helburuak, erabakiak, ametsak..., saiatuz, lor ditzakegu.

Bidaia

Kuala Lumpur, Malaysiako tigrea



Asiako hiririk zirrargarrietakoa Kuala Lumpur da, Malaysiako hiriburua. Ez da oso handia, eta bi milioi lagun ere ez ditu. Baina oso bizia da, hazkunde ekonomikoan sartua dago, eta euren artean desberdintasun handiak dituzten kulturak ditu.


KL hirian, era laburtu horretan deitzen diote bertakoek, bada irudi tipiko bat: Petronas Dorreak. Bi etxe-orratz hauen jabea Petronas da –hortik datorkie izena– Malaysiako petrolio-etxerik nagusiena. Dorre biki hauek munduko garaienak dira, 2001eko erasoak New Yorkekoak bota zituenetik. Bisita etsigarria gerta daiteke ez dutelako goraino (425 m.) igotzen uzten, bi dorreak lotzen dituen zubi pareraino (250 m.) baizik.

Petronas Dorreak bakarrik ez, badira arkitektura lan gehiago ere eder askoak hiriburuan. Menara KL Dorrea ere oso deigarria da, edo aireportua, modernoa oso, edo metroa, garbi-garbia eta beti garaiz dabilena.

Hiriburutik gertu beste hiri bat ari dira altxatzen: Cyberjaya. Goi mailako teknologiadun enpresak kokatu nahi ditu han Gobernuak. Malaysia ez da egun herrialde aberatsa, baina ekonomia zitzu bizian ari da indartzen. Dena den, landa gunek oso txiroak dira, naiz eta Kuala Lumpur Asiako hiririk arrakastatsuenetakoa izan.

Kuala Lumpurrek, eta Malaysia guztiak, duen berezitasunetako bat kultura aniztasuna da; malaysiarrak gehiago dira, musulmanak erlijioari erreparatzen badiogu. Baina txinatarrak ere ez dira gutxi, beraz, taoistak edo budistak erlijioz. Eta bada beste erlijio bat ere, hindua, gutxiengo indiarrarena. Beraz, nahiz eta hinduen edo budisten tenplu ugari izan, meskitak daude gehienbat.

Kultura aniztasuna bai, baina uztarketarik ez dago, norbera bere aldetik dabil eta. Txinatarrak txinatarrekin elkartzen dira eta hinduak hinduekin. Komunitate bakoitzak bere eskolak ditu, eta bertan nork bere kultura erakusten du, baina guztietan irakasten dira Malaysiera eta ingelesa. Orain artekoan ez da sortu kultura arteko aparteko gatazkarik. Baina azken boladan liskartxoak ari dira sortzen, agintean musulmanak direlako nagusi, eta geroz eta arau islamiar gehiago sartu nahi dituztelako, eta ez dute hori begi onez ikusten ez txinatarrek, ez hinduek.



Hala ere, arau islamiarrak ezartzerakoan Malaysia baino zorrotzagoak dira, adibidez, Pakistan eta Iran, edo arabiar herrialdeak. Malaysian emakumeak ilea agerian eraman dezake, eta nahierara jantzi. Baina bere burua musulman zintzotzat daukan andrazkoak beloa jantziko du. Hiriburuan ez da batere arraroa minigona daraman neskaren alboan beste bat ikustea buru eta hanka tapatapa eginda. Jatekoan ere ezin esan da ezpal berekoak direnik: musulmanek ez dute txerrikirik jaten, hinduek ez dute behia jaten, eta txinatarrek berriz, denetik. Malaysian alkohola duen edozein edari har daiteke, garagardoa barne, baina musulmanek ez dute alkoholik dastatzen eta txinatarrek, hauek askotxo. Lan egutegia berriz korapilatsua da, hiru erlijioetako festak errespetatzen dira eta. Errespetuaren datu adierazgarri bat: musulmanak Ramadan garaian daudenean egun osoan barau egiten dutenez, hinduak eta txinatarrek saiatzen dira jendaurrean ez edaten, eta ez erretzen.



Britainiarrei esker dago kultura aniztasun hau. Europarrek Malaysia XIX. gizaldian konkistatu zuten. Kautxu arboladietara jendea eraman zuten Indiatik eta Txinatik. Beraz, eskubide osoz dira hauek Malaysiar, azken bost belaunaldietan han baitira. Baina euren kulturari eutsi diote batzuek eta besteek, euren berezitasunei.

Malaysia 1857an gelditu zen britainiarrengandik aske, baina badu hauen ukitua zenbait ohituretan. Adibidez, gidatu ezkerretik egien dute, eta bigarren hizkuntza ingelesa dute. Hizkuntza hori

darabilte hain zuzen aipatutako hiru kulturek euren arteko harremanetan.

Exotismoz betetako jomuga turistiko bihurtu da Malaysia, hotel ederrak dituelako eta hondartza ederragoak. Eta markako genero ugari eros daiteke. Beste kontu bat da marka hori bene-benetakoa izatea, edo benetakoen itxura besterik ez izatea. Kontuak kontu, turismoa ekonomia baliabide nagusienetakoa da.

Kuala Lumpur hiriburuak oihana du inguruan. Munduan oso paraje gutxi du horrenbeste baso. Klima beroa du, eta hezea; 25 gradutik gora beti. Hemendik harako hegaldiak 14 ordu irauten du, eta ordu diferentzia handia da oso, hemen eguna argitzerako eguerdia da han. Beraz, ezinbestean, lehen egunetan behintzat, nekea sentituko du bidaiariak. Onena lasaitzea izango da, eta dena berehala ikusi nahi ez izatea. Horixe da hain zuzen KL Malaysiako tigrea otzantzeko bide bakarra.

HABE aldizkaria, 2009ko urtarrileko alea, 396.zenbakia. Egokitua.

13. Zein izango litzateke testu honen gai nagusia?

- A. Malaysiako Kuala Lumpur izeneko tigrea.
- B. Asiako gizartearen ezaugarriak.
- C. Kuala Lumpurren elkarrekin bizi diren erlijio desberdinak.
- D. Kuala Lumpurreko eta Malaysiako kultura aniztasuna eta euren desberdintasunak.

14. Zeintzuk ziren 2000. urtean munduko dorrerik garaienak?

- A. New Yorkeko Dorreak
- B. Petronas Dorreak
- C. Eiffel Dorrea
- D. Pisa Dorrea

15. Esan ondorengo baieztapena okerra ala zuzena den. Okerra balitz zuzendu gaizki dagoena.

“Malaysia herrialde aberatsa bihurtu da, batez ere bere landa guneei esker eta Kuala Lumpur hiriburuari esker.”

.....
.....
.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Okerra da, eta zuzendu beharreko puntu bat aipatzen du, ondorengoan artean: a) Malaysia ez da egun herrialde aberatsa, nahiz eta ekonomia indartzen ari den. b) Landa gunek oso txiroak (pobreak) dira.
2	2	Zuzendu beharreko bi arrazoiak ematen ditu, lehen aipatutakoak.

16. Aipa itzazu Kuala Lumpurren eta Malaysian elkarrekin diren komunitate desberdinak eta euren erlijioak.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Malaysiarrak (musulmanak), txinatarrak (taoistak eta budistak), eta indiarrek (hinduak).

17. Ondorengo baieztapenen artean, zein da egia?

- A. Malaysian eta Kuala Lumpurren kultura desberdinak elkarrekin uztarturik bizi dira.
- B. Malaysiako eskola guztietan Malaysiera eta ingelesa irakasten dira.
- C. Azken boladan kulturen arteko liskar bortitzak eman dira.
- D. Izandako liskarrak ez dituzte begi onez ikusten ez txinatarrak, ez hinduek.

18. Aukera ezazu “ezin esan ezipal berekoak direnik” esamoldearen sinonimo egokiena.

- A. Bandejairen jabe direnik
- B. Bihotz gabeak direnik
- C. Etxean otso eta kanpoan uso direnik
- D. Ahaide hurbilak direnik

19. Malaysian elkarrekin bizi diren hiru kulturak janzteko eta jan-edateko ohitura desberdinak dituzte oro har. Baina bada zerbait hiru kulturak onartuko luketena Malaysian. Aukeratu ondorengo baieztapenetatik guztiz zuzena litzatekeena.

- A. Malaysian edari alkoholduak legalak direnez, hiru kulturatakoek edaten dituzte edari alkoholduak.
- B. Malaysian hiru kulturatakoek jan dezakete behi xerra patata frijituekin.
- C. Malaysian emakume guztiak ilea agerian ibil daitezke.
- D. Malaysian edozein herritarrek jan dezake txorizo bokadilo bat.

20. Testuak dioen bezala, hiru kultura hauek zenbait gauzetan elkarri dioten errespetua agerian gelditzen da. Aipa itzazu bi adibide elkarri dioten errespetua adieraziko luketenak.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Adibide bat jartzen du, ondoko hauek artean: <ul style="list-style-type: none"> • Lan egutegiak hiru erlijioetako festak errespetatzen ditu. • Ramadan garaian hinduak eta txinatarrak jendaurrean ez jaten eta ez erretzen saiatzen dira.
2	2	Bi adibideak jartzen ditu.

21. Hasieran zertara iritsi ziren txinatarrak eta hinduak Malaysiara?

- A. Europarrek eraman zituzten Malaysia konkistatzeko.
- B. Bertako kautxu-arboladietan lana egitera.
- C. Britainiarren ejertzitoan indiar eta txinatar soldadu asko zeudelako.
- D. Britainiarrentzat interprete lanak egitera.

22. Testua honela amaitzen da: “Horixe da hain zuzen Kuala Lumpur Malaysiako tigrea otzantzeko bide bakarra.” Bestalde, kontutan hartuz testu honen izenburua “Kuala Lumpur, Malaysiako tigrea” dela, zergatik tigrearen aipamen hori? Beste modu batean esanda, zergatik erabiltzen du tigrea hitza?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Tigrea Malaysian bizi den animalia bat da.
2	2	Tigrea Asiako (edo Malaysiako) animalia da eta parekatzen ditugu animalia horren ezaugarriak eta hiriarenak: handia, bizia, indartsua, botereduna...

23. Kuala Lumpur eta Malaysiari buruz testuak dioena irakurri ondoren, zure ustez ba al dago nolabaiteko antzekotasunik herrialde hartan gertatzen denaren eta gurekin gertatzen denaren artean? Baietz uste baduzu, idatzi ikusten dituzun antzekotasunak:

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra.
1	1	Bi antzekotasun edo gehiago aipatzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Etorkinak bizi dira. - Hizkuntza aniztasuna. Guk ere hizkuntza bat baino gehiago dugu. - Erlijio aniztasuna. - Kultura aniztasuna. - Aniztasuna errespetatzen da. - ...

GUTUNA

hitza

Harpidedun agurgarria,

Beste ezer baino lehen, HITZAREN partetik agurrik beroena. Mila esker zure konfiantzagatik eta egunero ematen diguzun babesagatik.

Harpidedun zarelako, saritu nahi zaitugu. Horregatik, opariak zozkatuko ditugu hilero, baita ikuskizun, emanaldi, jaialdi eta abarretarako sarrerak ere.

Horretarako, oso garrantzitsua da gutun honekin batera doakizun harpidedun txartela gordetzea, horixe izango baita eskaintzak eta opariak eskuratzeko bitartekoa.

Txartelean, zure izen-abizenak eta **HARPIDEDUN KODEA** agertzen dira; honek identifikatuko zaitu HITZAREN harpidedun gisa eta hauxe izango da txokoan parte hartzeko eman beharko duzun zenbakia.

Harpidedunen txokoan parte hartzeko bideak: [harpidedun kodea eskura duzula eta eskaintzak aukeratuta]

Deitu **902-820240** telefono zenbakira edo idatzi txokoa@hitza.info helbidera.

Hileko azken astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara.

Harpidedun partikularren kasuan, titularrak eta haren senide zuzenek erabili ahal izango dute txartela.

Erakunde, enpresa, ikastetxe eta gainerakoen kasuan, titularrak bakarrik.

Edozein eskari, zalantza, kexa edo iradokizun helarazteko aldiz, jar zaitez harremanetan bezeroarentzako arreta zerbitzuarekin:

Deitu: 902-82 02 01 telefono zenbakira.

Astelehenetik ostiralera 08:30-20:30 / larunbatetan 09:00-13:00

Idatzi: harpidetza@hitza.info

Agur bero bat,

HARPIDETZA SAILA

Egokiturik

24. Zein da testu honen komunikazio asmoa?

- A. Irakurleak entretenitzea.
- B. Gai bati buruz iritzia ematea.
- C. Zerbaiten berri ematea.
- D. Zerbait saltzea.

25. Zein da testu honen igorlea?

- A. Harpidedun bat.
- B. HITZAren Harpidetza Saila.
- C. Ez du zehazten nor den ez dagoelako sinatuta.
- D. Harpidedunen Txokoa.

26. Nori zuzenduta dago testu hau?

- A. Herritar guztiei.
- B. Euskaraz dakiten herritarrei soilik.
- C. HITZA erosten dutenei.
- D. HITZAren harpidedun direnei.

27. Gutun honek aipatzen du...

- A. HITZAren erosle guztiak sarituko dituztela.
- B. HITZAren harpidedunak soilik sarituko dituztela.
- C. HITZAra deitzen duten guztiak sarituko dituztela.
- D. HITZAra deitu edo idazten duten guztiak sarituko dituztela.

28. Harpidedunen txokoa parte hartzeko beharrezkoa da zenbaki bat ematea. Zein da zenbaki hori?

- A. 902 820240
- B. Nortasun Agiriaren zenbakia.
- C. 902 820201
- D. Harpidedunen kodea.

29. Harpidedunen txartela erabili ahal izango dute...

- A. Harpidedunek soilik.
- B. Harpidedun partikularrek eta haren senide zuzenek.
- C. Harpidedun partikularrek eta erakunde, enpresa , ikastetxe eta gainerakoek.
- D. Erakundek, enpresek, ikastetxek eta haien senide zuzenek.

30. Testuaren hasieran dio “Mila esker zure konfiantzagarritik eta egunero ematen diguzun babesagarritik.” Zer esan nahi du esaldi horrekin?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Harpideduna denez, egunero erosten du produktu hori eta hori da hain zuzen ere, eskertu nahi diona.

31. Orain, ohar zaitetz orrialdearen egiturari. Ohartuko zinen goiko aldean badela espazio zuri bat bi kortxete modukoaren artean, ezta? Zein izango da zure ustez espazio horren funtzioa? Testuan aurkituko duzu horren pistarik.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Harpidedun txartela jartzeko.

32. Gutunak erabiltzen duen hizkerari buruz esan dezakegu:

- A. Hizkera guztiz formala dela.
- B. Hizkera guztiz informala dela.
- C. Hizkera formala eta informala nahasten dituela.
- D. Ez dela ez formala eta ez informala, beste bat baizik.

33. Ohartuko zinenez, testuan behin eta berriz ageri da “HITZA” hizki larriz idatzita. Zergatik uste duzu horrela idatzirik dagoela?

- A. Oso hitz polita irudituko zaielako.
- B. Hitz horrek garrantzi handia duelako euskaldunen artean.
- C. Ez du garrantzirik, beste batzuetan hizki xehez idazten dute.
- D. Aipatzen duten produktuaren izen berezia delako.

34. Zergatik daude zenbait pasarte beltzez nabarmendurik? Zein da zure ustez horren arrazoia?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Testuko informazioa nagusienetakoa delako, nabarmendu beharreko informazioa: telefonoa, web orrialdea... Arreta deitzeko.